

TELEBISTA OPERATZAILEENTZAKO EKKI TARIFAREN MEMORIA EKONOMIKOA

Euskal Kulturgileen Kidego EKKI Elkartea (EKKI) jabetza intelektualeko eskubideen kudeaketa kolektiborako erakundea da. Apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Jabetza Intelektualeko Legearen testu bateratuaren arabera (aurrerantzean JIL) eta Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22an hartutako akordioa onartzen duen ekainaren 28ko 141/2011 Dekretuarekin bat eratu da. Aipatutako Transferentzien Bitariko Batzordearen Akordio hori Euskal Autonomia Erkidegoari jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arloan irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuak gehitzeari buruzkoa da.

Kultura Ondarearen zuzendariaren 2014ko urriaren 20ko Ebazpenaren kariz, baimena jaso du Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik edo nagusiki jardun dezan Jabetza Intelektualaren Legean aitortzen diren eskubideak kudeatzeko erakunde gisa.

Bere estatutuei jarraiki, egile eta jabetza intelektualaren eskubideen beste ezein titularren ustiapen-eskubideak eta ondare izaerako eskubideak kudeatzea du helburu. Beste batzuen artean, hurreneko eskubideak kudeatzen ditu:

- a) Erreproduktzio, banaketa eta komunikazio publikoari dagozkion eskubide eksklusiboak, literatura, antzerki, musika, ikusentzunezko, eta izaera grafiko ala plastikoko obren gaineko egiletza eta beste eskubideei ala eskubie lotuei (artista, interpretatzaile eta produktoreen eskubideak, JIL-ko II. Liburuan azaltzen direnak) dagokienez.
- b) Eskubidedun hauei dagozkien ordainketa hutseko eskubideak, bereziki JIL-ko 20, 90, 108, 116 eta 122 artikuluetan zehazten diren heinean, aurretik aipatutako obren erreproduktzio eta komunikazio publikoei, fonogramen erreproduktzio eta komunikazio publikoari eta ikusentzunezko produkzioen erreproduktzio eta komunikazio publikoari dagokienez.

Memoria honen objektu diren tarifetatik kanpo geratzen dira, berariaz, publizitate lanetan zein ikusentzunezko bestelako lanetan egindako sinkronizazio musikala eta lehen finkapena.

Tarifa hauek aurretik Tarifa Orokorretan zegokien epigrafeetan, Telebista Operatzaileentzako ezarritako tarifen tokia hartzen dute. Horrez gain, erabiltzaile mota honen kontestu berezia aitortzen dute, baita euskal telebisten ekosistemaren errealitatea. Ildo beretik, ECD/2547/2015 Kultura ministerioaren Aginduan ezarritako eta ondoren JIL-an 2/2018 legearen bitartez sartutako printzipioetara doitzen dira, eta hauek jabetza intelektualeko kudeaketa erakundeentzako tarifen determinaziorako baldintza eta irizpideetara.

KALKULU OINARRIA

Kalkulu oinarriaren zehaztapenean, aldagai ugari ezartzen dira, helburua erreperitorioaren ustiapenarekin lotuta dauden irabaziak (IGE) identifikatzea den heinean diru-sarrera guztien artetik, erreperitorioaren erabilerak haien ekintza enpresarialean duen garrantziarekin loturik.

- Egozgarritzat har daitezkeen gastu eta irabazietan –erreperitorioaren erabilerarekin lotuak beraz– era adierazgarrian zerrendatzen dira telebista operatzaile gehienek irabazien gehiengoaren jatorri direnak, operatzaileak publiko zein pribatu izan: publizitateagatiko irabaziak, ohiko ekintza aurrera eramateko jasotako diru-laguntzak eta honek sektore pribatuan duen baliokidea, esplotazio-defizita estaltzeko helburuz egindako kapital ekarpenak.
- Zehazki egozgarriak ez direla ezartzen diren gastu eta irabazietan, aurreko atalean egindako izaera orokordun definizioak mugatzen dira. Atal honen helburua sektorearen eskari espezifikoak aditzea da; adibidez, kalkulu oinarrian sartu ez daitezela jabetza intelektualeko eskubideak ordaintzeko helburuz jasotako diru-laguntza (erreferentzia zirkular bat sortzen delako, eskubideak ordaintzeko aurreikuspena kalkulu oinarrian sartuta artifizialki puztuz urtero eskubideen prezioa), edo erreperitorioarekin zerikusirik ez duten gastuak estaltzeko ematen diren diru-laguntzen zehaztapen zabalagoa.

EITBk tarifa honen negoziazioan zehar egindako proposamenen harira, ezartzen da espezialitate tarifarioa jabego publikoak diren erakundeentzako; diru-laguntzen haztapena ikuslegoaren batz bestekoak kontuan hartuaz. Zuzentzaile honen abiapuntua ikuslegoaren analisia da, haztatuaz potentziala eta errealia, eta hortaz erakunde autonomiko desberdinen errealitate askotarikoetara doituaz. Formula honek oinarritzat erabiliko ditu alderdien artean adostutako ikuslego neurketak.

Hurrengo puntuan, telebista operatzaile bakoitzak izan dezakeen kanal bakoitzarentzako ezartzen da kalkulu oinarria, hala doituaz enpresaren errealitate praktikora, finantzariora beharrez; eta kontuan hartuaz erreperitorioak izan dezakeen garrantzia erakunde bakoitzak barne dituen marketako bakoitzean.

Ondoren, kanal bakoitzaren emisioak ordu-tarteka banatzen dira, telebista kanalen programaketa ohituren arabera identifikatzen direnak. Hurrenak dira:

Ordu-tartea	Hasiera	Amaiera
Goizaldea	02:30	07:00
Goiza	07:00	14:00
Bazkalondoa	14:00	17:00
Arratsaldea	17:00	20:30
Prime Time	20:30	24:00
Late Night	00:00	02:30

Kanal bakoitzarentzako identifikatutako IGEak ordu-tarteka banatuko dira, kanal bakoitzaren irabazien totaletik bakoitzari dagokion ehunekoa zehazteko. Batzuk aldagarriak izan daitezke (publizitateagatiko irabaziak) eta beste batzuk estatikoak (diru-laguntzetatik datorren gastu-banaketa). Sistema honen helburua EKKIren erreperorioaren erabilera zehatza operatzailearentzako duen garrantzia era argienez ateratzea baimenduko duen tarte batean kokatzea da, hortaz bilketa eta banaketa balio handiagoa opatuz tarte horretan erabilitako erreperorioari.

ERREPERTORIOAREN ERABILERA

ECD/2547/2015 Agindu iraungiaren 5. artikularekin adostasunean, erabilera zehatza izango da erabiltzaileak, bere ekimenaren osotasunean, EKKIren erreperorioko lanetatik egin dezakeen erabilera, banaka identifikatu daitekeena. EKKIk soilki erabilera zehatzaren identifikazioan oinarritutako tarifa aplikatzen du, bestelako neurketa metodo konparatibo zein estrapolatuak alboratuz.

Erabilera zehaztetik eratortzen da erreperorioak erabiltzailearen ekimen osoan izan dezakeen erabileraren intentsitatea (garrantzia kuantitatiboa), erabiltzen diren obra zehaztasuna alde batera utzita, denbora ehunekotan adierazia. Irizpide honen aplikazioa hurrena da: lan edo prestazio baten erabilera errepikatuta bakoitza lan horren lehen erabileraren baliokide izango da (hortaz, erabilera bakoitza banaka kontatuko da). Erabileraren intentsitatea tarifa hauen oinarri den erabilera zehatzaren kalkulutik ateratzen da.

Erabileraren garrantzia (garrantzia kualitatiboa), atal honetan aipatu den 5. artikulua ezarria, da erreperorioaren ustiapenak erabiltzailearen ekimenean duen eragin kualitatiboa kalkulatzeko irizpidea. Memoria honen objektu den EKKIren erreperorioak, nagusiki musika zein ikusentzunekeo lanak, erreperorio mota hau kudeatzen duten beste erakundeen antzera, funtsezko izaera du, bere erabilera, aipatu Aginduak ezarri bezala, nahitaezkoa den heinean telebista operatzailearen ekimenaren sostengurako.

Aurretik esandakoaren gehigarri, tarifek erabiltzaileek proposatutako garrantzia neurgailu desberdinak kontuan hartzeko aukera dute barne. Erabilera zehatzaren datu frogagarrien bitartez motibatu eta arrazoitu behar dira. Argudiatu ahalko dira ere kanal zein ordu-tarte desberdinen izaera komunikatiboak hauek erreperorioaz egiten duten aprobetxamendu ekonomikoari dagokionez, eta hortaz jasotako irabaziek erreperorioaren ustiapenarekin izan dezaketen erlazioa zehaztuaz.

TARIFAREN TIPOA

Tarifa hauetan ezarritako tipoak bat datoz hein haundi batean EKKIk eskubideen kudeaketa kolektiboan dituen lehiakideek eskainitakoekin. Kasu batzuetan, tarifa tipo ezberdinak bakarrean elkarturik daude, hala nola fonogramen ekoizleei eta musika lanen interpretatzaileei era bateratuan dagokien ordainketa hutsei, bat eginak hemen erreperitorio mota ber horrek dituen eskubidedunei dagozkion eskubide eskusiboekin. Honen helburua tarifen argipen eta sinplifikazioa lortzea da, iraganean maiz konplexu eta nahasgarriak zirenak, eskaini daitezkeenak EKKIren baimenak barne hartzen dituelako JIL-ean aurreikusitako eskubide guztiak.

Tarifaren tipoari aplikatzen zaio erabilera zehatzagatiko zuzentzailea. Egun eskuragarri dauden teknologiek opatzen dizkiguten aukeretaz baliatuz, EKKIk bere erreperitorioaren identifikazio osoa egingo du. Kasu honetan erabiliko den teknologia Vericast™ da, BMAT enpresak garatua, zeinak telebista kanalak denbora errealean monitorizatzea baimentzen duen, algoritmo baten bitartez identifikatuz nahi den erreperitorio konkretu bateko lan zehatzak. Identifikazio sistema baten oinarrituaz osoki, EKKIk erabiltzailearekiko bidezkoa eta bazkidearekiko gardena den eredia proposatu nahi du.

Erabilera zehatzeko tarifen kasuan, ez du zentzurik erreperitorioaren zabaltasunean beste erakundeekiko dagoen desberdintasuna adierazteak tarifen tipoa besteena baino txikiago beharko lukeela argudiatzeko asmoz, erabilera zehatzagatiko zuzentzailea aplikatzeaz gero, likidazioak erakundearen erreperitoriora doituak direlako osoki; horrela, eskubidedunak bere erreperitorioaren ustiapenagatik jaso beharko lukeen bidezko ordainketa beste erakunde baten jasoko lukeen kopuruaren antzekoa da. Kontrakoa lehiakideekiko desabantaila egoeran kokatzea litzateke, zeintzuek, bide batez, ez duten ahaleginik egin 2015etik hona erabilera zehatzagatiko tarifak gauzatzeko (DAMaren salbuespenarekin), batezbesteko erabileragatiko tarifak (jada zaharkituak) izanik telebista operatzaileei aplikatzen zaizkienak. Erakunde hauek erabilera zehatzaren arabera haztatuko balituzkete haien tarifak, erabiltzaileak ez luke -bestalde okerra den- ideia, EKKIri eskubideak ordaintzea jada ordaintzen duenarekiko gehigarri bat denarena.

HOBARI ETA DESKONTUAK

Sektorearen ohiturari jarraiki, hobariak eskaintzen dizkie tarifa honek identifikazioan erraztasunak eta laguntza aktiboa eskaintzen duten erabiltzaileei, baita autolikidazioak bete eta era informatizatuan EKKIri helarazten dizkionari. Hobariak pizgarri izan nahi dute kudeaketa erakunde eta erabiltzailearen arteko komunikazio zalua lortzeko, zeinak erraztuko duen epe luzean eskubideen kudeaketa egokia izan daitela, alderdien arteko harreman eta informazio eta ezagutzaren trukeari esker.

MINIMOAK

Kontuan hartuta EKKIk lepo hartu behar dituen gastuak bere erreperitorioak

operatzaile baten ekimenaren barne zein zifra eta kopuru duen jakiteko, tarifak minimo hauek eskaintzen ditu. Hauek gastu horien osotasuna berdintzen ez duten arren, diru-sarrera minimoak bermatzen dituzte, egindako lana justifikatzeko modukoa. Kopuru hauek sinbolikotzat hartzen dira, duten prezio baxua dela eta.

Tarifaren tipoaren kasuan ez bezala, minimoak ezartzean bada beharrezkoa erreperitorioaren zabaltasuna kontuan izatea. Finean, erreperitorioaren identifikazioari dagozkion kostu finkoak, erreperitorio handiagoa duen beste erakunde batek izan ditzakeena baino txikiagoak dira, eta hortaz, ordain minimoak horrekin bat etorri behar du. Era berean, eta logikoki, identifikazioa ezinezkoa den kasuetan, erreperitorio txikiago batengatik ordainak erreperitorio zabalagoa duten erakundeena baino txikiagoa izan behar du.

Ez da bidezkoa, hala ere, tarifa minimoak deuseztatzeak erabilera zehatzaren lehentasuna argudiatuz, haien existentziak bermatzen baititu EKKIren bazkide diren eskubidedunekiko konpentsazio minimo bat, eta identifikazioarekin loturiko kostu finkoen estaldura partziala.

EMANDAKO ZERBITZUAREN KOSTUA

ECD/2547/2015 Aginduan ezarritakoaren arabera, Emandako Zerbitzuaren Kostua (EZK) eraginkortasun eta kudeaketa onaren printzipioekin bat eginez kalkulatu da.

1 Kostu motak

- Lizentzia kostuak: erreperitorioaren zabalkundeari dagozkion kostuak (izan kudeaketa kontratuen sinaduren bitartez, zein beste lurraldetako erakundeen erreperitorioen kudeaketarako lizentziak lortzearen bitartez); eta lizentzia bera ematearekin loturiko kostuak.
- Tarifa ezartzearen kostuak: tarifaren kalkulu eta ezarpenari dagozkion kostuak.
- Kontrol kostuak: erakundeak erreperitorioaren erabilera zehatza kontrolatzeko jartzen dituen medioekin loturiko kostuak.

2 Kostu kategoriak

- Zuzenean egozgarriak diren gastuak: telebista operatzaileekin zuzenean lotutako gastuak
- Zeharka egozgarriak diren gastuak: gastu finkoak, baina telebistarekin lotura zuzena daukatenak.

Tipo bakoitzeko kostuak zuzenean egozgarri eta zeharka egozgarri kategorietan banatu ditugu (eta zeharka egozgarriak direnen kasuan, telebista operatzaileei zein ehuneko inputatu dakioken).

3 Kostuen moten kategorizazioa

- Lizenzia kostuak

Lizenzia kostuak dira tarifen zehaztapen prozedurei dagozkienak, EKKIren aldetik bazkide egiteari dagozkion kostuak, eta kanpoko erreperitorioen lizenziaketari dagozkionak.

Lizenzia kostuak, orokorrean, zeharkakotzat hartu dira, mintegi sektorialen antolakuntza kontuak izan ezik, bazkide kategoria zehatzak biltzeko asmoz EKKIren aldetik ahalegin ekonomiko berezia direlako.

Lizenzia kostuak dira:

Egozgarria
Bazkideak egitearen kostu zeharka egozgarriak*
Pertsonala
%50

Funtzionamendua
%50
Bazkideak egitearen kostu zuzenki egozgarriak*
Mintegi sektorialak
%100

*Kalkuluaren momentuan EKKIk nazioarteko erreperteriorik kudeatzen ez duenez, gastu hau ez da gehitu.

- Tarifa ezartzearen kostuak

Telebista operatzaileentzako tarifaren zehaztapenari dagozkion kostuak hauen lanketa, ikerketa, ezagutza eta diseinuari opatu zaizkionak dira.

Egozgarria
Tarifa ezartzearen kostuak
Pertsonal kostuak
%100

Funtzionamendua
%100

- Kontrol kostuak

Izenak dionez, kostu hauek kudeaketa erakundearen erreperitorioaz egiten den erabilera zehatza kontrolatzeari loturikoak dira. Kostu pertsonalaz gain (erabilera zehatz horren kontrolari emandako orduak, informazio bilera eta prozesamenduan); kontrola eramateko teknologiei dagozkien gastuak: datu-base

garapenaren kostuak (diseinua, garapena, software baliabide ugarien implementazioa), eta identifikazio eta kontrolerako teknologiei opatutako aurrekontua.

Kasu honetan, zuzenean egozgarriak dira: telebistak kontrolatzeko teknologien kostuak eta kontrolari opatu zaizkion pertsonal kostuak.

Zeharka egozgarriak dira: datu basearen garapenari dagozkion kostu informatiko zein pertsonalak.

	Egozgarria
Erabilera zehatzaren kontrolerako kostu zuzenean egozgarriak Pertsonal kostuak	%100
Kontrol teknologiak	%100
Erabilera zehatzaren kontrolerako kostu zeharka egozgarriak Pertsonal kostuak	%90
DB garapena	%90

4 Kostuen egozgarritasuna

Kanal bakoitzeko egozgarritasun ratioa horrela kalkulatu da: Lizentzia kostu, Tarifa ezartzearen kostu eta Erabilera zehatzaren kontrolerako kostuak gehituz, eta emaitza zatituz kalkuluaren momentuan EKKIren eremuan dauden TB kanal kopuruagatik (Ondare Zuzendariaren 2014ko urriaren 21eko Ebazpenak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua, EKKI baimendu zuen nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan aritzeko Jabetza Intelektualeko Legean aitortutako eskubideen kudeaketa erakunde bezala aritzeko).